**ERABAKIA, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ZIENTZIA ETA GIZARTE GARAPENAREN ETA TRANSFERENTZIAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZAREN 2024KO URTARRILAREN 29KOA, MUGIKORTASUN LAGUNTZEN DEIALDIA EGITEKO UPV/EHUREN GARAPENERAKO LANKIDETZA ARLOKO PRAKTIKA AKADEMIKOEN TUTOREENTZAT EDO GRADU AMAIERAKO LANEN EDOTA MASTER AMAIERAKO LANEN ZUZENDARIENTZAT (IRAKOOP)**

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoa, Iraunkortasunaren eta Gizarte Konpromisoaren arloko zuzendariari atxikia, UPV/EHUk sortu zuen zerbitzua da Garapenerako Unibertsitate Lankidetza (GUL) bultzatzeko. Unibertsitatearen konpromiso instituzionala agerian geratzen da alde batetik lankidetza-programa eta proiektuak aurrera eramateko baliabide teknikoak, giza baliabideak eta finantza-baliabideak ematean, eta bestetik, unibertsitateko agente guztiek lankidetza-jardueretan parte hartzea bultzatzeko egiten dituen ahaleginetan (jokabide-kodearen 12. eta 14. artikuluak).

Premisa horren azpian, Garapenerako Unibertsitate Lankidetzaren jarduera on bat Garapenerako Lankidetza Proiektuen inguruko Praktiken eta Gradu Amaierako Lanen (GrAL) programan[1] aurkitzen dugu. Programa honek, UPV/EHUren Gobernu Kontseiluak onartutakoa 2003ko maiatzaren 13an, aukera ematen die ikasleei Gradu Amaierako Lanak (GRAL) edo Kanpoko Praktika Akademikoak (KPA)[2] egiteko lankidetza erakundeek garapen bidean dauden herrialdeetan dituzten proiektuetan, esperientzia hori beren formakuntza akademiko-praktikoari eransteko.

**RESOLUCIÓN DEL 29 DE ENERO DE 2024 DEL VICERRECTOR DE DESARROLLO CIENTÍFICO-SOCIAL Y TRANSFERENCIA DE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA POR LA QUE SE CONVOCAN AYUDAS PARA LA MOVILIDAD DEL PROFESORADO QUE TUTORIZA PRÁCTICAS ACADÉMICAS Y/O DIRIGE TRABAJOS FIN DE GRADO Y/O TRABAJOS FIN DE MÁSTER EN COOPERACIÓN AL DESARROLLO DE LA UPV/EHU (IRAKOOP)**

La Oficina de Cooperación al Desarrollo de la UPV/EHU, adscrita a la Dirección de Sostenibilidad y Compromiso Social de la UPV/EHU, es un servicio creado por esta universidad para impulsar la Cooperación Universitaria al Desarrollo (CUD). El compromiso institucional de la Universidad con la cooperación al desarrollo se expresa, por un lado, en la dotación de medios técnicos, humanos y financieros para llevar a cabo programas y proyectos de cooperación y por otro, en el estímulo continuo a la participación de todos los agentes de la comunidad universitaria en las actividades de cooperación (artículos 12 y 14 del Código de Conducta).

Bajo esta premisa, una buena práctica de Cooperación Universitaria al Desarrollo lo encontramos en el Programa de Prácticas y Trabajos Fin de Grado (TFG) en Proyectos de Cooperación al Desarrollo[3]. Este programa, aprobado por el Consejo de Gobierno de la UPV/EHU el 13 de mayo de 2003, posibilita al alumnado hacer sus Trabajos Fin de Grado (TFG) o Prácticas Académicas Externas (PAE)[4] en proyectos que realizan las entidades de cooperación en países en desarrollo, integrando esta experiencia como parte de su formación académico-práctica.

---

[1] https://www.ehu.eus/es/web/oficop/programa-praktikoa-eta-kap
[2] https://www.ehu.eus/documents/1432750/12749778/NORMATIVA+BOPV+CAS.pdf/dbc49d00-b5b8-a8bf-5223-9a49102cc34d
[3] https://www.ehu.eus/es/web/oficop/programa-praktikoa-eta-kap
[4] https://www.ehu.eus/documents/1432750/12749778/NORMATIVA+BOPV+CAS.pdf/dbc49d00-b5b8-a8bf-5223-9a49102cc34d

Programa honek erantzuten dio UPV/EHUren 2022-2025 Plan Estrategikoaren[5] ikuspegiari: UPV/EHUk bere ikasleei ematen dien prestakuntza ikerketan eta pentsamendu kritikoan oinarrituta dago, metodo zientifikoa erabilita. Garapen jasangarriarekin inplikatuta dagoen prestakuntza bat da. Unibertsitateak aukera ematen die ikasleei beren buruak intelektualki eta giza ikuspegitik garatzeko, eta ingurunea eraldatzeko gaitasuna eskuratzen dute, modu etiko batean eta sormena erabilita, gero eta zorrotzago den ingurune aldakor batean.

Este programa responde a la visión del Plan Estratégico de la UPV/EHU (2022-2025)[5] de proporcionar a su alumnado una formación basada en la investigación, en el pensamiento crítico con método científico, e implicada con el desarrollo social sostenible. Se espera que paso por la universidad contribuya a su desarrollo intelectual y humano, y a su capacidad transformadora actuando de forma ética y creativa en un entorno cambiante y cada vez más exigente.

Horrela, jakitun izanik ikasleen artean gizarte konpromisoa sustatzeak duen garrantziaz, norbanakoaren zeharkako gaitasun gisa, haien garapen pertsonal eta profesionalerako ezinbestekoa, UPV/EHUk apustu egin du jadanik sendo dagoen Garapenerako Lankidetza Proiektuen inguruko Praktiken eta Gradu Amaierako Lanen (GrAL) programan irakasleen eginkizuna indartzearen alde. Horretarako, bultzada eman nahi die UPV/EHUko Irakasle eta Ikertzaileek (IIP) proiektu horiek garatzen diren herrialdetara egiten dituzten mugikortasunei, bertatik bertara ezagutzeko ikasleak lanean ari diren egitasmoak eta haien testuinguru soziopolitikoa, eta harremanak estutzeko tokiko erakundeekin, lankidetzan oinarritutako beste egitasmo batzuk abian jartzeko etorkizunean. Izan ere, 2030 Agendaren 17. GIHarekin bat eginez, garapen iraunkorreko proiektu arrakastatsu batek aliantzak behar ditu nahitaez. Aliantza horiek eraikita daude printzipio eta balio batzuen, ikuspegi partekatu baten eta helburu komun batzuen gainean, pertsonak eta planeta jartzen dituzte erdigunean, eta ezinbestekoak dira "inor atzean utziko ez duen" garapen iraunkorrerako.

Así, y siendo conscientes de la importancia de fomentar entre el alumnado el compromiso social, como competencia transversal imprescindible para su desarrollo personal y profesional, la UPV/EHU apuesta por fortalecer el papel del profesorado en el ya consolidado Programa de Prácticas y Trabajos Fin de Grado (TFG) en Proyectos de Cooperación al Desarrollo. Este fortalecimiento se concreta en el apoyo de la movilidad del Personal Docente e Investigador (PDI) de la UPV/EHU a los países de destino para conocer in situ los proyectos en los que interviene el alumnado y el contexto socio-político en el que se desarrollan, así como para fortalecer las relaciones con las organizaciones locales de cara a posibles proyectos de cooperación futuros. Ciertamente, atendiendo al ODS 17 de la Agenda 2030, un programa exitoso de desarrollo sostenible requiere alianzas. Estas alianzas construidas sobre principios y valores, una visión compartida, y metas compartidas, que sitúan a la gente y al planeta en el centro, son necesarias para el desarrollo sostenible "sin dejar a nadie atrás".

Ondorioz, deialdi honen xedea da laguntzak ematea Garapenerako Lankidetza Proiektuen inguruko Kanpoko Praktika Akademikoen (KPA) irakasle tutoreei, Gradu Amaierako Lanen (GrAL) edota Master Amaierako Lanen (MAL) zuzendariei, osoki edo partzialki ordain ditzaten UPV/EHUko ikasleak lanean ari diren

En consecuencia, esta convocatoria pone a disposición del profesorado tutor de Prácticas Académicas Externas (PAE), director/a de Trabajos Fin de Grado (TFG) y/o Trabajos Fin de Máster (TFM) en Proyectos de Cooperación al Desarrollo ayudas para financiar total o parcialmente viajes a los proyectos de

[5] https://ehu.eus/documents/1769324/4925575/UPVEHU_PLAN+ESTRATEGIKOA_2022_2025.pdf/16556f80-4045-8abc-443d-4c41bdeb1df4?t=1655464452913
https://www.ehu.eus/documents/1769324/4925575/UPVEHU_PLAN+ESTRATEGICO_2022_2025.pdf/78d22bba-3249-527b-85d0-fa9b602ba368?t=1655464453319

herrialdeetara egin behar dituzten bidaiak.

## DEIALDIAREN OINARRIAK

### 1. - Deialdiaren helburua

Deialdiaren helburua da laguntza ekonomikoak ematea ordaintzeko soil-soilik Garapenerako Lankidetza Proiektuen inguruko Kanpoko Praktika Akademikoen (KPA) tutoreek eta Gradu Amaierako Lanen (GrAL) edota Master Amaierako Lanen (MAL) zuzendariek ikasleak lanean ari diren herrialdetara egiten dituzten bidaiak, bidaia asegurua (IBILI-BEREZI), alojamendua eta mantenua.

Bidaia horien xede nagusia da gainbegiratzea UPV/EHUko ikasleak lankidetza proiektuetan egiten ari diren lana, ikasleek landu ditzaketen behar eta desafio berriak zehaztea, eta harremanak estutzea tokiko komunitateekin lankidetza proiektuen bitartez.

### 2. - Eskatzaileak eta baldintzak

2.1.- Deialdi honetan eskaera egin dezakete **UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileek, esperientziadunak Garapenerako Unibertsitate Lankidetzan, alor honetako Kanpoko Praktika Akademikoen (KPA) tutore edo Gradu Amaierako Lanen (GrAL) edota Master Amaierako Lanen (MAL) zuzendari direnak**.

2.2- Ezin izango dute deialdian parte hartu honako egoera hauetako batean daudenek:

a) Epai irmoz dirulaguntzak edo laguntza publikoak ezin jasotzera kondenatuak izan direnak.

b) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrean ordainketetan egunean ez daudenak.

c) Behin betiko erabakiz dirulaguntzarik ezin jasotzera zigortuak izan direnak, horrela ezartzen duten legeen arabera.

d) Ordaindu nahi den bidaia beste deialdi

cooperación al desarrollo destino del alumnado de la UPV/EHU.

## BASES DE LA CONVOCATORIA DE AYUDAS

### 1.- Finalidad de la convocatoria

Esta convocatoria concede ayudas económicas para cubrir exclusivamente los gastos de desplazamiento, seguro de viaje (IBILI-BEREZI), alojamiento y manutención del profesorado que tutoriza Prácticas Académicas Externas (PAE) y/o dirige Trabajos Fin de Grado (TFG) y/o Trabajos Fin de Máster (TFM) en cooperación al desarrollo a los proyectos de cooperación destino del alumnado.

La finalidad principal de estos viajes será supervisar las actividades del alumnado de la UPV/EHU en los proyectos de cooperación, así como identificar nuevas necesidades o retos que puedan ser abordadas por el alumnado de la UPV/EHU, así como estrechar lazos con las comunidades locales en los proyectos de cooperación.

### 2. – Requisitos de las personas solicitantes

2.1.- Podrá ser solicitante de esta convocatoria el **Personal Docente e Investigador de la UPV/EHU, con experiencia en Cooperación Universitaria al Desarrollo, que tutorice Prácticas Académicas Externas (PAE) y/o dirija Trabajos Fin de Grado (TFG) y/o Trabajos Fin de Máster (TFM) en este ámbito.**

2.2- No podrán optar a esta convocatoria quienes se encuentren en alguna de las siguientes circunstancias:

a) Haber sido condenado mediante sentencia firme a la pena de pérdida dela posibilidad de obtener subvenciones o ayudas públicas.

b) No hallarse al corriente de pago de obligaciones por reintegro de subvenciones.

c) Haber sido sancionado mediante resolución firme con la pérdida de la posibilidad de obtener subvenciones conforme a las leyes

baten bidez diruz lagundu daitekeenean. Eskatzaileak laguntzak eskatu baditu beste deialdi batzuetan eta haien ebazpenaren zain badago, eskaeran adierazi beharko du zer deialdi diren, zer erakunderenak diren eta zenbateko kopurua eskatu duen. Deialdi horietan baiezkoa jasotzen badu eta, ondorioz, beste laguntzarik onartzen badu, atzera botako da laguntza eskaera hau.

que así lo establezcan.

d) Que el viaje para el que se solicita la ayuda sea o pudiera ser subvencionado por otra convocatoria. En caso de que la persona solicitante haya solicitado ayudas a otras convocatorias y esté a la espera de la resolución deberá indicar en la solicitud el título de la convocatoria, la entidad que la convoca y la cuantía solicitada. En caso de que la resolución fuera positiva y la persona solicitante la aceptará, se procederá a la revocación de esta ayuda.

**3.- Finantzaketa.**

3.1- Onuradun bakoitzak **2.500 euro** baino handiagoa izango ez den laguntza bat jasoko du. Zenbat kreditu dagoen erabilgarria, hainbestekoa izango da emango den laguntza kopurua.

Deialdirako aurrekontua aurrekontu partida honetan jasota dago: 3945-E56-26000.

3.2.- **2024 urtean** eginiko bidaiak finantzatuko dira.

3.3- Jasotako laguntza erabiliko da honako hauek ordaintzeko:

- Joan-etorriak
- Bidaia asegurua
- Alojamendua
- Mantenua

Alojamendu eta mantenu kostuak ordaintzeko kopuruak zehaztean, kontuan hartuko da zer herrialdetara egingo den bidaia eta zenbat eguneko egonaldia egingo duen eskatzaileak (egun naturalak). Kopurua zehaztuko da bidaian egondako egun ziurtatu bakoitzeko, hasieran baimendutako aldiaren barruan, aintzat harturik Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordearen eta UPV/EHUren gerentearen 2019ko irailaren 5eko erabakiak ezarritakoa, UPV/EHUko zerbitzuagatiko kalte-ordainei eta protokolo eta ordezkaritza gastuei buruzko zehaztapenak ezartzen dituen erabakia[6].

**3.- Financiación.**

3.1- Cada persona beneficiaria percibirá con carácter general una ayuda que no superará los **2.500 euros**. El número de ayudas concedidas vendrá determinado por la disponibilidad del correspondiente crédito.

El presupuesto destinado a la convocatoria se encuentra en la partida presupuestaria 3945-E56-26000.

3.2.- Se financiarán los viajes realizados durante el año **2024**.

3.3 - La subvención concedida permitirá atender gastos correspondientes a:

- Desplazamientos
- Seguro de viaje
- Alojamiento
- Manutención

El importe de la ayuda para cubrir los costes de alojamiento y manutención se definirá según el país en el que se realiza la estancia y el número de días naturales de estancia que se acredite la persona solicitante. La cuantía que se adjudicará por cada día certificado de estancia, dentro del período inicialmente autorizado, en función a lo establecido en la Resolución del 5 de septiembre de 2019 de la Vicerrectora de personal docente e investigador y la gerente de la UPV/EHU sobre especificaciones en materia de indemnización por razón de servicio en la UPV/EHU y por gastos protocolarios y de representación[7].

[6] https://www.ehu.eus/eu/group/iip/zerbitzu-ordaine
[7] https://www.ehu.eus/es/group/iip/zerbitzu-ordaine

Kopuru bat emango da joaneko bidaia bat eta itzultzeko beste bat ordaintzeko, taula honen arabera:

| Abiapuntu - helmuga distantzia | Gehienezko kopurua |
|---|---|
| 1.000 km arte | 300 euro |
| 1.001 - 2.500 km | 600 euro |
| 2.501 - 11.000 km | 1.000 euro |
| 11.000 km-tik gora | 1.200 euro |

Deialdi honen estalduratik kanpo uzten dira honako gastu hauek: bisa lortzeko gastuak, banku transakzioen komisioak eta beste finantza gastu batzuk, eta deialdiaren helburuarekin lotura espezifikoa ez duten beste gastu batzuk.

Se concederá una cantidad para cubrir el coste de un viaje de ida y uno de vuelta con la siguiente distribución:

| Distancia entre origen y destino | Cantidad máxima |
|---|---|
| Hasta 1.000 km | 300 euros |
| Entre 1.001 y 2.500 km | 600 euros |
| Entre 2.501 y 11.000 km | 1.000 euros |
| Más de 11.000 km | 1.200 euros |

Quedan fuera de la cobertura de esta convocatoria los gastos derivados de la obtención de visados, las comisiones bancarias derivadas de las transacciones y otros gastos financieros, así como otros gastos no relacionados específicamente con la finalidad de la convocatoria.

## 4. - Eskaerak aurkeztea eta dokumentazioa

4.1- Eskatzaileak bere izenean egingo du eskaera eta dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- 1. dokumentua. Deialdi honi erantsitako (**1 eranskina**) eskaera inprimakia, eskatzailearen sinadura original edo elektronikoarekin.

- 2. dokumentua. Deialdi honen 2. oinarrian jasotako egoeretan ez dagoela eta helburu bera duen beste administrazio baten dirulaguntzarik jaso ez duela adierazten duen zinpeko deklarazioa (**2 eranskina**).

- 3. dokumentua. Helmuga herrialdeko lankidetza proiektuaz arduratzen den kontrako alderdiko arduradunaren gonbidapen gutuna, eskuz eginiko sinadura originalarekin edo sinadura digital baimenduarekin. Ez da gutun eskaneaturik onartuko.

- 4. dokumentua. Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordetzari bidaia egiteko baimena eskatu izanaren lizentzia edo egiaztagiria, edo, bestela, **3 eranskina**, betea eta sinatua, zeinaren bidez eskaera egin duen pertsonak bere gain hartzen dituen unea iritsita lizentzia hori eskatzeko

## 4.-Presentación de solicitudes y documentación

4.1- La solicitud deberá ser formulada a título individual por la persona solicitante, que deberá presentar la siguiente documentación:

- Documento 1. Solicitud según modelo adjunto de esta convocatoria (**Anexo 1**) con firma original o electrónica de la persona solicitante.

- Documento 2. Declaración jurada manifestando que no se incurre en ninguna de las circunstancias previstas en la base 2 de esta convocatoria, y no percibir subvención de ninguna administración que tenga por objeto la misma finalidad (**Anexo 2**).

- Documento 3. Carta de invitación de la persona responsable de la entidad contraparte del proyecto de cooperación en el país destino. Dicha carta deberá incorporar la firma original manuscrita o la firma digital autorizada. En ningún caso se aceptarán cartas escaneadas.

- Documento 4. Licencia o justificante de haber solicitado la correspondiente licencia para realizar el viaje al Vicerrectorado de Personal Docente e Investigador, en su defecto, el **Anexo 3** cumplimentado y firmado, mediante el cual la persona solicitante asume la

erantzukizuna eta baita baldintza hau ez betetzeak izan litzakeen ondorioak ere.

- 5. dokumentua. Eskatzailearen curriculum vitae laburra.
- 6. dokumentua. Tutorizatutako kanpoko Praktika Akademikoen eta/edo zuzendutako Gradu Amaierako Lanen zerrenda, irakasleen atalak egiaztatua, eta garapenerako lankidetzarekin lotutako KPAk,GrALak eta MALak zehazki jasoko dituen eranskin bat.
- 7. dokumentua. Banku titulartasun ziurtagiria.

responsabilidad de solicitar dicha licencia llegado el momento, así como las consecuencias generales derivadas del incumplimiento de este requisito

- Documento 5. Curriculum vitae abreviado de la persona solicitante.
- Documento 6. Relación de las Prácticas Académicas Externas y/o Trabajos Fin de Grado tutorizados y/o dirigidos emitido por la sección de profesorado, junto con un anexo en el que la persona solicitante indique de forma expresa las PAE,TFG y TFM vinculados a la cooperación al desarrollo.
- Documento 7. Certificado de titularidad bancaria.

4.2- Eskaera UPV/EHUko erregistro elektronikoaren bitartez aurkeztu beharko da: https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico. Bertan sartuta, «Jasotzailea» atalean, «*UPV/EHUko Gaparapenerako Lankidetza Bulegoa*» aukeratu behar da. Interesatuak identifikazio elektronikorako sistema hauetakoren bat erabili beharko du: UPV/EHUko txartela (Izenpe); Izenpe ziurtagiri digitala; NAN elektronikoa; edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES). Eta hori hala da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera (14.e) art.), eta bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakiarekin, zeinaren bidez onartu baitziren interesatuak UPV/EHUrekiko harreman elektronikoetan identifikatzeko eta sinadura elektronikoa erabiltzeko jarraibideak, bai eta erakunde horretan lanean ari diren pertsonak identifikatu eta sinadura elektronikoa erabiltzekoak ere.

4.2.- De conformidad con lo establecido en el artículo 14 e) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y en la resolución del Secretario General de la UPV/EHU de 28 de abril de 2021, por la que se aprueba la instrucción sobre identificación y firma electrónica de las personas interesadas en sus relaciones electrónicas con la UPV/EHU y de las personas empleadas que prestan servicios en la misma, la solicitud deberá presentarse en el registro electrónico de la UPV/EHU, ubicado en la dirección URL https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico, eligiendo en "Destino" de la solicitud a *la Oficina de Cooperación al Desarrollo de la UPV/EHU.* Para ello, se deberá utilizar el certificado electrónico de empleado o empleada de la UPV/EHU, el certificado Digital de Usuario de Izenpe, el DNI electrónico o el certificado de la Fábrica Nacional de Moneda y Timbre FNMT-CERES.

Era berean, eskaera aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoan eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan, aurrez aurre. Erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan aurkezten diren eskaerak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoan sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean

Asimismo, podrá presentarse en los restantes registros electrónicos de cualquiera de las entidades pertenecientes al sector público, y, en casos excepcionales, presencialmente en las oficinas de asistencia en materia de registros de la UPV/EHU. Las solicitudes y documentos presentados en las oficinas de asistencia en materia de registros de la UPV/EHU serán digitalizados para su incorporación al expediente administrativo electrónico, devolviéndose los originales a la persona

identifikatu eta horrela jarduteko adostasun espresua adierazi ondoren, hori guztia UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakiaren arabera, zeinaren bidez onartu baitziren gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaietan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHUn; eta funtzionario publiko gaituen erregistro.

interesada, previa su identificación ante la persona funcionaria y otorgamiento de consentimiento expreso para esta actuación, de conformidad con la resolución del Secretario General de la UPV/EHU de 28 de abril de 2021, por la que se aprueba la instrucción sobre oficinas de asistencia en materia de registros, la presentación en la UPV/EHU de solicitudes, escritos u otras comunicaciones a través de persona funcionaria pública habilitada y el registro de personas funcionarias públicas habilitadas.

UPV/EHUk eskubidea izango du eskaeren edukia argitu edo zehazte aldera beharrezkoa iruditzen zaion informazioa eskatzeko.

La UPV/EHU se reserva el derecho a reclamar la información suplementaria que considere conveniente para aclarar o detallar el contenido de las solicitudes.

## 5.- Eskaerak aurkezteko epea

Bi adjudikazio egingo dira, **7.500 eurora** arteko programaren kreditua agortu arte. Lehen adjudikazioan diru kopuru hori agortuz gero, ez da bigarren adjudikazioa egingo.

- **Lehen adjudikazioa**. Eskaerak egiteko epea zabalik egongo da deialdia argitaratzen den egunetik **2024ko martxoaren 14ra** arte (biak barne).

- **Bigarren adjudikazioa**. Epea zabalik egongo da **2024ko martxoaren 14tik 2024ko ekainaren 14ra** (biak barne).

Deialdirako aurrekontua (7.500 euro) aurrekontu partida honetan jasota dago: 3945-E56-26000.

Balia daitekeen kreditua agortuko ez balitz, Errektoreordetzak soberakina UPV/EHUren garapenerako lankidetza bultzatzera bideratutako ekintzak burutzeko erabili ahalko du.

## 5.- Plazo de presentación de solicitudes

Tendrán lugar dos adjudicaciones hasta agotar el crédito del programa, que asciende a **7.500 euros**. Si en la primera adjudicación se agotase el importe destinado, no se procederá a una segunda adjudicación.

- **Primera adjudicación**. El plazo de presentación de solicitudes permanecerá abierto desde la fecha de publicación de la convocatoria hasta el **14 de marzo de 2024** (ambos incluidos)**.**

- **Segunda adjudicación** El plazo permanecerá abierto desde el **15 de marzo hasta 14 de junio de 2024** (ambos incluidos)**.**

El presupuesto destinado a la convocatoria (7.500 euros) se encuentra en la partida presupuestaria 3945-E56-26000.

De no agotarse el crédito disponible, el Vicerrectorado podría destinar el excedente en ejecución de acciones encaminadas a fomentar la cooperación universitaria al desarrollado de la UPV/EHU.

UPV/EHUren Garapenerako Lankidetza Bulegoaren 2024. urteko aurrekontuak baimentzen badu, ErREKtoreordetza honek bigarren adjudikaziorako laguntzen kopurua handitu ahalko du.

En el caso de que el presupuesto 2024 de la UPV/EHU así lo permita este Vicerrectorado podrá ampliar el número de ayudas correspondientes a la segunda adjudicación

## 6 - Eskaerak baloratzeko irizpideak

Eskaerak aztertuko dira honako irizpide hauen arabera:

- Bidaiaren interesaren justifikazio arrazoitua, aurrekontuaren justifikazioa barne (30 puntu).
- Egonaldian egin beharreko jarduerak eta haien ekarpena UPV/EHUk garapenerako unibertsitate-lankidetzaren esparruan dituen helburuak lortzeko (30 puntu)
- Irakasleak duen esperientzia garapenerako lankidetzarekin lotutako Kanpoko Praktika Akademikoen edota Gradu Amaierako Lanen zein Master Amaierako Lanen tutoretzan/zuzendaritzan (40 puntu).

Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren Arloko Errektoreordeak izendatutako batzorde tekniko batek egingo du ebaluazioa. Batzorde horrek atzera bota ahal izango ditu oinarrizko berme akademikorik ez duten eskaerak, edo garapenerako unibertsitate lankidetzaren alorrarekin loturarik ez dutenak, eta atzera botatzearen arrazoiak azalduko dizkio eskatzaileari.

## 6- Criterios de valoración de las solicitudes

Las solicitudes serán evaluadas atendiendo a los siguientes criterios:

- Justificación razonada del interés del viaje, incluida la justificación del presupuesto (30 puntos).
- Actividades a realizar en la estancia y su aportación a la consecución de los objetivos de la UPV/EHU en el ámbito de la cooperación universitaria al desarrollo (30 puntos)
- Experiencia y proyección de la persona docente en la tutorización de Practicas Académicas Externas y/o dirección Trabajos Fin de Grado o/y Trabajos Fin de Máster en cooperación al desarrollo (nº de prácticas tutorizadas y/o trabajos dirigidos) (40 puntos).

La evaluación la realizará una comisión técnica nombrada al efecto por el Vicerrector de Desarrollo Científico-Social y Transferencia de la UPV/EHU. Dicha comisión tendrá potestad para desestimar aquellas solicitudes que no presenten una garantía académica básica o no guarden relación con el área de cooperación universitaria al desarrollo, motivando a la persona solicitante las causas de esta desestimación.

## 7.- Dirulaguntza igortzeko baldintzak.

Laguntza kopuru bakar batean abonatuko da, honako dokumentu hauek aurkeztu ondoren

## 7.- Condiciones del libramiento de la Subvención.

El abono de la ayuda se realizará de una sola vez y una vez presentado en la Oficina de

UPV/EHUren Garapenerako Lankidetza Bulegoan:

- Gastuen justifikazioa
- Helmuga herrialdean eginiko egonaldiari buruzko txostena (Amaierako txostena), 4. eranskinaren arabera eginikoa.
- Harrera erakundearen ziurtagiria, egonaldiaren datekin eta eginiko jarduerekin.

Igorriko den kopurua gehienez izango da deialdi honen 3. oinarrian ezarritakoaren arabera emandako kopurua. Eginiko gastuen egiaztagiri gisa, laguntza eskatu duten pertsonek eginiko ordainketen **egiaztagiri originalak** aurkeztu beharko dira:

a. Bidaiak: bidaia txartelak, ontziratze txartelak eta ticket originalak aurkeztu beharko dira bidaien egiaztagiri gisa, eta, gainera, ordainketa fakturak edo ziurtagiriak.

b. Ez da onartuko ibilgailuen alokairu gasturik.

c. Ibilgailu partikularra erabiliz gero, egiaztagiri gisa gordeko dira autobide txartelak edo antzekoak, joan-etorria justifikatzeko modu gisa.

d. Alojamendu eta mantenu gastuen egiaztagiriak, kontuan izanik helmuga herrialde bakoitzean baimendutako gehienezko mugak. Kasu berezietan ezin bada alojamenduaren edo mantenuaren faktura edo txartel originalik aurkeztu, gastuen zinpeko deklarazio bat egin beharko da.

Garapenerako Lankidetza Bulegoak dirulaguntzaren onuradunei eskatu ahal izango die informazio edo sentsibilizazio saioetan parte hartzeko, non praktiketan,GrALean edo MALean sortu den dokumentazioa eta material grafikoa nahiz ikus-entzunezkoa aurkeztuko den.

UPV/EHUk material hori erabili ahalko du jardueren berri ematen duten dokumentuak egiteko, sentsibilizazio ekintzak eta kanpainak antolatzeko, erakusketak egiteko eta bere

Cooperación al Desarrollo de la UPV/EHU:

- La justificación de gastos
- El Informe descriptivo de la estancia en el país de destino (Memoria Final) elaborado de acuerdo al Anexo 4.
- El certificado de la entidad de acogida en el que se reflejen las fechas de la estancia y las actividades realizadas.

El importe que se librará será como máximo la cantidad concedida de acuerdo con lo establecido en la base 3 de esta convocatoria. Como justificante de los gastos realizados se deberán presentar los **comprobantes originales** de los pagos realizados por parte de las personas solicitantes de la ayuda:

a. Para los viajes: los billetes, tarjetas de embarque y tickets originales serán exigidos como único documento acreditativo de éstos, además de las facturas o justificantes de pago.

b. No se admitirán gastos de alquiler de automóviles.

c. Si se utiliza vehículo particular, se deberán guardar como comprobantes los recibos de autopista o similares que justifiquen la realización del desplazamiento.

d. Los justificantes de los gastos de alojamiento y manutención realizados, teniendo en cuenta los topes máximos permitidos en cada país de destino. En el caso de circunstancias especiales que no permitan presentar facturas o tickets originales del alojamiento y manutención se requerirá una declaración jurada de dichos gastos.

La Oficina de Cooperación al Desarrollo de la UPV/EHU podrá requerir su asistencia a Las personas beneficiarias de esta ayuda a las sesiones informativas o de sensibilización, donde se presentará el material gráfico-audiovisual y la documentación que se haya generado durante sus prácticas, TFG o TFM.

La UPV/EHU podrá utilizar este material para preparar documentos de difusión de actividades, realizar acciones y campañas de sensibilización, organizar exposiciones e incluirlo en su memoria anual de actividades.

urteroko jarduera txostenean sartzeko.

## 8. - Laguntzak ematea

Oinarri hauen arabera, nork bere eskariaren okerrak zuzentzeko edo hobetzeko eskatuz gero, 10 egunetako epea izango dute, gehien dela, zuzenketa eta hobekuntzak egiteko. Honela egin ezean, ulertuko da eskaria bertan behera uzten dela Administrazio publikoen administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 legearen 123. Eta 124. artikuluetan ezarritakoarena aintzat hartuta.

Eskarien akatsak zuzentzeko 10 egunak igarota, UPV/EHUko Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren Arloko Errektoreordeak xede honetarako izendatutako batzordeak bilera egingo du. Batzorde horren buru UPV/EHUko Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko errektoreordea izango da (Konpromisoaren eta Eragin Sozialaren arloko zuzendariaren esku utz dezake). Gainera, batzorde hori Garapenerako Lankidetza Bulegoaren teknikariak, idazkari gisa, eta UPV/EHUko Iraunkortasunaren eta Gizarte Konpromisoaren arloko zuzendaritzako teknikarien artean hautatutako bi kidek osatuko dute.

Batzordeak akta egingo du eta balorazioaren araberako eskaeren zerrenda eta ezetsitako eskaeren zerrenda erantsiko dizkio aktari. Ondoren, UPV/EHUko Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren errektoreordea Arloko Errektoreordeari erabakia hartzeko proposatuko dio.

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Bulegoak laguntza hauen onuradunetako zerrendaren berri emango die parte hartu duten pertsonei, bai eta esleitu zaien kopuruaren berri ere. Era berean, informazioa hori Garapenerako Lankidetza Bulegoaren web orrian ere argitaratuko da.

## 8.- Adjudicación de las ayudas

Aquellas personas solicitantes a las que se les solicite subsanar algún defecto o mejorar su solicitud con arreglo a lo dispuesto en estas bases, dispondrán de un plazo de un plazo máximo de 10 días para cumplimentarlo, con la advertencia de que de no hacerlo se entenderá que desiste de su solicitud, de conformidad con lo establecido en los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Transcurrido el plazo de 10 días naturales para subsanar los defectos de la solicitud, se reunirá la Comisión de Evaluación establecida al efecto. Esta Comisión será presidida por el Vicerrector de Desarrollo Científico-Social y Transferencia de la UPV/EHU (que podrá delegar en el Director de Compromiso e Impacto Social), la técnica de la Oficina de Cooperación al Desarrollo, que actuará de secretaria, y compuesta por dos personas vocales elegidas entre el personal técnico de la Dirección de Sostenibilidad y Compromiso Social de la UPV/EHU.

La Comisión elaborará el acta con la relación de solicitudes por orden de valoración y la relación de las solicitudes desestimadas. La Comisión propondrá esta acta al Vicerrector de Desarrollo Científico-Social y Transferencia de la UPV/EHU.

La Oficina de Cooperación al Desarrollo de la UPV/EHU notificará a las personas participantes el listado de personas beneficiarias de las ayudas, así como el importe concedido. Del mismo modo, esta información se hará pública a través de la página web de la Oficina de Cooperación al Desarrollo.

Laguntza hau onartzen duten pertsona onuradunak deialdi honetan zehaztutako baldintzei lotuta daude eta horiek bete behar dituzte. Laguntza hauen onuradunek IBILI aseguru poliza berezia eduki behar dute, edo parekoa, (6 hilabetetik beherako bidaien kasuan), bidaiak eta egonaldiak iraungo duen denboraldi osorako, eta Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzak bidaia egiteko emandako lizentzia. Poliza hori ordaindu izanaren egiaztagiria eta lizentzia lortzea beharrezkoak izango dira laguntza jaso ahal izateko.

La aceptación de la ayuda por parte de las personas beneficiarias implica la sujeción a lo establecido en esta convocatoria y al cumplimiento de los términos de la misma. Quienes sean beneficiarias de estas ayudas están obligadas a disponer de una póliza de seguros IBILI especial, o similar, (para viajes inferiores a 6 meses), por el período completo de duración del viaje y de la estancia y a disponer de la licencia expedida por el Vicerrectorado de Personal Docente e Investigador para realizar el viaje. La acreditación de haber pagado dicha póliza y la obtención de la licencia será necesaria para el cobro de la ayuda.

## 9. - Laguntzak kentzea

Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzak, UPV/EHUko Iraunkortasunaren eta Gizarte Konproisoaren arloko zuzendaritzaren proposamen arrazoituari jarraiki, emandako diru laguntza zati batean edo erabat kentzeko ahalmena izango du, zehaztutako baldintzak betetzen ez direnean edo proiektuen edukia neurri handi batean aldatzen denean, baldin eta horretarako guztirako aurretiazko jakinarazpenik edo baimenik egon ez bada.

Honako ebazpen honen kontra, legokiokeen aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahalko da, argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta hilabeteko epean (administrazio publikoen erregimen juridikoari eta administrazio-prozedura bateratuari buruzko 39/2015 legearen 123 eta 124. artikuluak), edota, ez aldi berean ordea, administrazioarekiko auzi errekurtsoa, legokiokeen administrazioarekiko auzitegiaren aurrean, bi hilabeteko epean, berau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

## 9. -Revocación de las ayudas

El Vicerrectorado de Desarrollo Científico-Social y Transferencia, a propuesta motivada de la Dirección de Sostenibilidad y Compromiso Social la UPV/EHU, podrá revocar total o parcialmente la ayuda concedida cuando no se respeten los términos establecidos o cuando se modifique significativamente el contenido de la estancia y cuando aquellas alteraciones temporales o sustantivas no hayan sido previamente comunicadas y autorizadas.

Contra la presente resolución se podrá interponer el correspondiente recurso potestativo de reposición desde el día siguiente a su publicación en el plazo de un mes (artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas), o bien, pero no de manera simultánea, recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado correspondiente de lo contencioso administrativo, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la fecha de su publicación.

Leioan, 2024ko urtarrilaren 29an

En Leioa a 29 de enero de 2024

14952802L GUILLERMO QUINDOS (R: Q4818001B)

Firmado digitalmente por 14952802L GUILLERMO QUINDOS (R: Q4818001B)
Fecha: 2024.01.29 15:49:01 +01'00'

**Sin. /Fdo.: Guillermo Quindós Andrés**

Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko errektoreordea/ Vicerrector de Desarrollo Científico-Social y Transferencia